

DIAGNOSTIKOA

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa

EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

(zehar)
errefuxiatuekin

2023ko ekaina

1. **Diagnostikoaren helburua**
2. **Metodologia eta emandako pausoak**
3. **Ondorioak eta programa sendotzeko eta hobetzeko gomendioak**
4. **Ondorioen eta gomendioen jarraipena egiteko matrizea**

1. DIAGNOSTIKOAREN HELBURUA

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa elkartasun politikorako tresna bat da. Haren helburua da babes ematea beren herrialdean egindako jarduerengatik bizitza edo osotasun fisiko edo emozionala arriskuan duten giza eskubideen defendatzaileei, EAEn sei hilabeteko egonaldia eskainita. Programa Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak zuzentzen du eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak kudeatzen du, eta eLankidetzeta – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak laguntzen du programaren garapenean. Banakako akonpainamendua ematen du, honako helburu hauekin:

- Atsedean hartzeko eta fisikoki eta emozionalki indarberritzeko espazio bat sortzea, zaintza gure ekintza politikoaren erdigunean jartzearen alde eginda. Oinarrizkoa da gorputzari erreparatzea eta osasunari ikuspegi holistikotik heltzea. Norbera indartzea, osatzea, atsedean hartzea, gorputzari entzuteko espazioak izatea eta akonpainamendu psikoterapeutikoa eta arreta medikoa izatea funtsezko estrategia politikoa da norbanakoa eta kolektiboa indartzeko.
- Nazioarteko babes-sareak zabaltzea eta indartzea, erakundeen eta elkarten agenda politikoa garatuz EAEn, Espainian eta, hala badagokio, Europan.

Hamar urte baino gehiago egin ondoren ikuspegi feminista eta psikosozial batetik babes integrala ematen, lanean dihardugu nazioarteko sareak ehuntzen jarraitzeko, kolektiboki eraikitzeko eta lurraldeetan irauten duten antolakundeetatik ikasteko.

Programa tresna malgua izateko sortu da, defendatzaileen eta haien kolektiboen beharrietara eta testuinguru global aldakorrera egokitu dadin. Horrela, defendatzaileekin etengabeko harremana izanda eta ebaluazio- eta kontraste-saioak eginda, hainbat doikuntza egin ditugu lan-urte hauetan guztietan.

Nolanahi ere, hamarkada bateko ibilbidearen ondoren, egoki iritzi zitzaion diagnostiko zehatzagoa eta sakonagoa egiteari, balizko hobekuntzak identifikatzeko, defendatzaileen eta haien kolektiboen jatorrizko testuinguruaren egungo errealitatera egokitze eta, halaber, harrera-herrialde den EAEn errealitatera egokitze. 2022an eta 2023ko lehen seihilekoan egindako diagnostiko-lan horren emaitza da dokumentu hau.

2. METODOLOGIA ETA EMANDAKO PAUSOAK

Diagnostiko-prozesuan honako hauek parte hartu dute:

- Eskubideak defendatzen eta justizia sozialaren alde lan egiten duten Hego Globaleko 35 antolakunde, tartean direla programaren edizioen bateko parte-hartzaileak eta EAeko lankidetzaren beste aliatu eta tokiko bazkide batzuk. Horien artean, 15 Kolonbiakoak, 11 Guatemalakoak, 5 Hondurasekoak, 2 Perukoak, 1 Nikaraguakoa eta 1 El Salvadorrekoa.
- EAeko 34 antolakunde, Hegoaldean eskubideak defendatzeko prozesuetan laguntzen dutenak lankidetzaz edo elkartasun internazionalistan oinarrituta, aurrez programan parte hartuta nahiz parte hartu gabe.
- EAeko Programaren Hautaketa Batzordea, honako hauek osatua: Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza, eLankidetzaz – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Hegoa Institutua, Euskadiko GGKEen Koordinakundea eta Eskubidez – Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Erakunde-Foroa.
- Ikuspegi feministan oinarritutako babes integralaren arloko adituak: Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarra, Nazioarteko Bake Brigadak – Espainiako Estatua eta Programa Català de Protecció de Defensors i Defensores dels Drets Humans.
- EAeko erakunde publikoak: Bilboko Udala, Vitoria-Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia.

Diagnostiko-prozesuak une edo fase bat baino gehiago izan ditu. Lehenengoan, 2022ko ekainean, informazioa jaso zen online galdetegiaren bitartez, lehen hurbilketa egiteko eta diagnostikoaren hurrengo pausoak diseinatzeko. Galdetegi ezberdinak egin dira parte-hartzaileen profilen arabera, eta Hego Globaleko antolakundeei, EAeko antolakundeei eta Hautaketa Batzordeko kideei bidali zaizkie.

Jasotako informazioan oinarrituta, lanerako eta gogoeta egiteko hiru espazio diseinatu dira: bat Hego Globaleko antolakundeekin (online, 2022ko uztailaren 14an), beste bat EAeko antolakundeekin (aurrez aurre, 2022ko uztailaren 20an), eta hirugarrena Hautaketa Batzordeko kideekin (aurrez aurre, 2022ko irailaren 23an). Horri esker, defendatzaileen eta haien kolektiboaren babesarekin lotutako beharrezanetan sakondu ahal izan da, bai eta EAeko programak erantzun hobea eman ahal izateko hobekuntza-proposamenetan ere.

Diagnostikoaren lehenengo bi fase horien emaitza, Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak aztertu ondoren, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Zuzendaritzarekin eta eLankidetzaz – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin partekatu da. Baterako gogoeta horretatik atera da diagnostikoaren lehen zirriborroa.

Ondoren, lortutako emaitzak kontrastatzeko hiru espazio estrategiko identifikatu dira: defendatzaileei eta arriskuan dauden kolektiboek babes eta akonpainamendua ematen ibilbide luzea duten entitateak, Espainiako beste harrera-programa batzuk eta EAeko erakundeak. Hori horrela, 2022ko azken hilabeteetan eta 2023. urtearen hasieran, kontrasteak egiteko bilerak egin dira Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarrarekin, Nazioarteko Bake Brigadak – Espainiako Estatua egitasmoarekin

eta Programa Català de Protecció de Defensors i Defensores dels Drets Humans programarekin, bai eta Bilboko Udalarekin, Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin ere¹.

Bildutako azken ekarpenak jaso ondoren, diagnostikoaren azken dokumentu hau egin da.

Prozesuari buruzko dokumentazioa eskura daiteke, eskatuz gero. Hurrengo atalak modu sistematizatuan jasotzen ditu kontsulta- eta eztabaida-prozesuaren eduki guztiak.

¹ Bilboko Udala, Vitoria-Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia izan ziren diagnostiko-prozesuan parte hartu zuten hiru erakundeak. Hiru lurraldeetako aldundiak eta udalak ere gonbidatuta zeuden.

3. ONDORIOAK ETA PROGRAMA SENDOTZEKO ETA HOBETZEKO GOMENDIOAK

HEGOALDEKO ANTOLAKUNDEEN BABES-GAITASUN KOLEKTIBOAK INDARTZEA

Programa **babes integralari** buruz ikasteko tresna bat da Hegoaldeko eta EAeko antolakundeentzat. Programa garatzean eskuratutako ezagutza horiek giza eskubideen eta lankidetzaren arloan egindako lanean aplikatzen dira gero. Bi alderdiek **ikuspegi feminista eta psikosoziala** nabarmentzen dute batez ere, bereziki zaintzari eta emakumeen eta LGBTIQ+ pertsonen arretari dagokionez, baita izaera kolektiboa eta belaunaldiartekotasuna ere.

Programak babesaren arloan trebatzeko proposamen bat garatzen du, eta, horretarako, hainbat tailer kolektibo eta banakako saio egiten dira. Tailer eta saio horien helburua da pertsonak eta haien kolektiboek babesari buruzko ezagutzak areagotzea, eta, halaber, indartze indibidual eta kolektiborako ekintzak definitzeko ibilbide-orri bat diseinatzea (osasun integrala, sareak eta aliantzak).

Urte luzez, akonpainamendua eta kanpo-aholkularitza jaso dugu ANSUR kolektiboaren aldetik, zeina aditua baita ikuspegi psikosozialean oinarritutako babes integralean. Gaur egun, akonpainamendu hori Beatriz Puerta babes integral feministako adituak ematen digu.

- **Kolektiboei jatorrian ikuspegi feminista eta psikosozialean oinarritutako babes integrala emateari buruzko ikastaroak** egitea, tresna eta material pedagogikoen bidez.

Nola?

- Jarraipen-bisitak aprobetxatuz lurraldeetan tailerrak egiteko. Tailer horiek balio dezakete EAEn egon diren bitartean defendatzaileekin egindako lanaren itzulkin gisa. Halaber, baliagarriak izan daitezke denboran planifikatutako gaikuntza-prozesuak ekarriko dituzten prestakuntza-beharrak identifikatzeko.

IKUSPEGI FEMINISTA ETA PSIKOSOZIALA INDARTZEA. DEKOLONIALITASUNEAN SAKONTZEA

Oso ontzat jotzen da programak zaintza erdigunean jartzeko, aisialdia legitimatzeko eta norberaren zainketa, sendaketa eta atsedena sustatzeko egiten duen apustua. EAEn aldi baterako harreran egoteak defendatzaileei modua ematen die indarkeria soziopolitiko eta matxistetatik deskonektatzeko, bai eta aintzat hartzeko ere zein garrantzitsua den nork bere burua zaintzea besteak zaindu ahal izateko. Nabarmentzen dute horrek indarra ematen diela itzultzeko, eta hala transmititzen diete beren antolakundeei.

Arlo horretan ondoen baloratutako ekintzen artean daude, alde batetik, prozesu terapeutiko bat egiteko aukera, eta, bestetik, programan seme-alabekin batera parte hartzeko aukera, haiek ere kontuan hartzen baitira agendak eta akonpainamenduak diseinatzeke orduan.

Nabarmentzen da zeharkako beharra dagoela babes-ekintzak defendatzaile bakoitzaren ahultasun, beharrian eta nahietara egokitzen jarraitzeko, babes- eta segurtasun-plan indibidualizatuak sortuta.

- Defendatzaileei eman beharreko akonpainamenduan begirada dekoloniala nola txertatu sakontzea.

Nola?

- Babes integralari eta ikuspegi dekolonialari buruzko ikastaroak eginez (dela EAEko antolakundeetarako, dela programaren koordinaziorako).
- *Ad hoc* ikastaroak eskatuz Hegoalde Globaleko antolakunde aliatuei.
- Halaber, antolakunde laguntzaileek nabarmentzen dute akonpainamendu terapeutikoa behar dela, arriskuan dauden defendatzaileei laguntzeak dakarren karga emozionalagatik.

Nola?

- Taldeko tailerrak eginez antolakunde laguntzaileentzat.
- Programa koordinatzeko banakako akonpainamendu terapeutikoa berreskuratuz.
- Adierazi da, halaber, beharrezkoa dela ongizate emozionalari mesede egiten dioten beste elementu batzuk txertatzea, hala nola kirola, artea eta kultura.

Nola?

- Tokiko erakundeek, hala nola Bilboko Udalak (gaur egun harrera-etxebizitza dagoen lekua), abonua eman ditzakete udal-kiroldegietara sartzeko (Bilbao Kirolak), eta sinergiak ezarri kultura- eta aisialdi-jardueretarako irispidea errazteko.
- Bizikidetzaren eta jarrera matxisten edo LGTBIfobikoen ondoriozko tentsioek edo gatazkek kalte egin diezaioke ate sedenaren eta zaintzaren aldeko helburuari. Seme-alabak ardurapean dituzten emakumeek intimitatea bermatuko dieten eta segurtasun-sentsazioa areagotuko dieten atsedeen-espazio propioa behar dute. Gainera, zaintzaren ardura ez da hedatu behar espazio berean bizi diren beste defendatzaile guztiengana.

Nola?

- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailari eskaera eginez.
- Aztertuz ea aukerarik dagoen programaren harira udalekin lankidetzan aritzeko. Ekarpentako bat programarekin lotutako ostatu-baliabideak handitzea izan liteke; horrela, emakume defendatzaileentzako etxe bat izan genezake kasu hauetarako:
 - Edizio mistoak, balizko indarkeria matxisten aurka prebentzioz jardun ahal izateko. Baditugu aurretiko esperientziak. Gainera, horrekin ados daude emakume defendatzaileen harrerari eta babesari buruzko gogoeta eta eztabaida feministarako espazioak.
 - Seme-alabak ardurapean.
- Seme-alaben zainketa eta agenda politikoko jardueretako parte-hartzea kontziliatzen laguntzea.

Nola?

- Tokiko erakundeek modua eman dezakete adingabeak haurtzaindegi edo udalekuetako plazetan sar daitezzen Aste Santuan eta udan.

- Zainketa puntualak: programak lagundu dezake defendatzaileen seme-alabak une jakin batzuetan zaintzen, defendatzailearen agendak hala eskatzen duenean.

PROGRAMAREN POSIZIONAMENDU PUBLIKOA ETA EZAGUTZA HANDITZEA

- Programaren **posizionamendu** publikoa handitzea:

Nola?

- Nortasun bisual propioa duen buletin bat sortuz: aldizkako argitalpen bat, alertekin, defendatzaileen jardurekin, deialdiari buruzko informazioarekin eta beste babes-sare eta -proiektu batzuetarako estekekin; ezohiko argitalpen bat, alertekin eta posizionamendu puntualekin.
- Sare sozialetan estrategia bat sortuz, profil propioekin.
- Aldizkaria ezagutarazteko datu-base bat eginez (horren berri emango duten pertsonak, antolakundeak, sareak, entitateak oro har).
- Programaren eta haren helburuen eta irismenaren gaineko **ezagutza handitzea**. Deialdi eta hautagaitzen prozedura da hobetzeko proposamen gehien duten elementuetako bat.

Nola?

- Deialdiaren baldintzak argituz eta eguneratuz: ohiko galderen dokumentu bat eginez.
- Programa aurkezteko saioak eginez, GLEAren, GGKEen koordinakundearen eta Eskubidez erakundearen inplikazio, babes eta hedapenarekin:
 - Hiru lurraldeetan.
 - Jatorrian, jarraipen-bisitetan.
- Tartean dauden eragileek deialdia ezagutarazteko kanalak hobetuz: Hautaketa Batzordea, Eusko Jurlaritza (bereziki GLEA), EAEko antolakundeak eta Zehar-Errefuxiatuekin.

ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAK ERRAZTEA

Herrialdetik irteteak eta aldi baterako beste leku batean kokatzeak ziurgabetasuna eta karga emozional handia sortzen die defendatzaileei. Administrazio-izapideak elementu estresagarri gerta daitezke une zailetan.

Nabarmendu dute bisaren izapideak asko luzatzen direla eta babes zailtzen dutela. Gainera, adierazi dute arrisku-faktore erantsi bat direla Espainiako Gobernuako Kanpo Arazoetako Ministerioak enbaxaden eta bulego kontsularren bitartez jatorriko erakundeekin egiten dituen «egiaztapenak» —erakundeok, kasu askotan, biktimarioak dira—.

- Bisak kudeatzeko administrazio-izapideak erraztea.

Nola?

- Espainiako Babes Programen Sareak Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren Giza Eskubideen Bulegoarekin (GEB) duen intzidentzia politikoaren ildo indartuz.
- Sareak elkarrizketa-bideak aztertuz eta irekiz GEBean presio politikoa egin dezaketen beste eragile batzuekin.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren arteko komunikazioa indartuz.

ERANTZUTEN AHALMENA AREAGOTZEA

Batzuetan, programaren denborak ez datoz bat defendatzaileen irteteko beharrekin, eta horren arrazoi nagusia da deialdia urtean hilabete batez bakarrik egoten dela irekita.

- Erantzuteko ahalmena areagotzea proposatzen da.

Nola?

- Deialdi ofizialarekin plaza guztiak betetzen ez badira, plazak irekita utziz ondoren sor daitezkeen kasuetarako.
- Plazen kopurua handituz.
- Deialdia urte osoan irekita edukiz.
- Urtean bi deialdi irekiz (lehenengo seihilekoa eta bigarrena).

HARRERA-DENBORETAN MALGUTASUN HANDIAGOA IZATEA

Kasu batzuetan, sei hilabeteko harrera-aldiak ez dira bat etortzen pertsona jakin batzuen banakako eta taldeko babes-beharrizaneekin. Beharrezkoak izan daitezke egonaldi luzeagoak, defendatzaileei prozesu terapeutiko luzeagoen bidez senda daitezkeen denbora emateko; edo prozesu laburragoak, besteak beste, beren antolakundearen barne-prozesuek, familia-erantzukizunek edo deserrotzearen beldurrak eragindako mugak direla eta.

- Egonaldien denborak malgutzea, defendatzaileen eta haien antolakundearen beharretara eta nahietara egokituz.

Nola?

- Lau eta zortzi hilabete arteko egonaldiak ahalbidetuz. Egoera horiek gertatu dira jada urteotan. Defendatzaile batzuek, egoera pertsonalengatik eta antolakuntza-egoerengatik, denbora gutxiago eman dute programan; eta beste batzuek, berriz, luzatu egin dute aldi hori, beren arrisku-egoerengatik, eta, beraz, itzultzeko ekintzak indartu behar izateagatik. Aukera hori ohiko jardunbide gisa sar genezake, baldin eta denbora malgutzearen bidez ase badaitezke defendatzaileek eta haien kolektiboek ongizatearen, babesaren eta familia-edo komunitate-egoeraren arloan dituzten beharrizanak.

SAREAK ETA ALIANTZAK SENDOTZEA

Oso ontzat jotzen da sareak eta aliantzak sendotzea: parte hartzen duten defendatzaileen artekoak; EAEko harrera-antolakundeen artekoak; eta defendatzaileen eta haien harrera-antolakundeen artekoak. Sareak sendotzeak haien lana indartzen du, kontaktu berriak sorrarazten ditu eta haien borrokak ikusarazten laguntzen du.

EAEko antolakundeek nabarmentzen dute programan parte hartzeak aukera ematen diela defendatzaileen eta haien antolakundeen errealitateetara hurbiltzeko, bai eta beren lanean ikuspegi eurozentrikotik aldentzeko ere. Lotura oso estuak sortzen dira, arlo profesionaletik eta militantzia politikotik haratago.

Sare horiek ez dira programako parte-hartzaileen artean soilik sortzen, baizik baita EAEko egonaldian harremana izan duten beste batzuekin ere.

Jatorriko antolakundeek Ipar Globalean eragin politikoa izateko aukera azpimarratzen dute. Defendatzaileek beren borrokak ikusarazi eta jarrai ditzakete hemen, haiek hurbilduz eta kolektibizatuz. Programa baliabide ekonomikoen iturri zuzenekoak edo zeharkakoak ere bada.

- Programak lankide dituen entitate eta organismoak areagotzea.

Nola?

- Hegoaldeko antolakundeek planteatzen dute egokia dela aliantzak egitea, besteak beste, Nazio Batuekin, Protection Internationalekin, Front Line Defendersekin, IM-Defensorasekin eta PBIrekin.
- Iparraldeko antolakundeek eta Batzordeak tokiko administrazio gehiago sartzea proposatzen dute, hala nola udalak eta aldundiak. Dokumentuan, identifikatutako babesak zehazten dira: udal-kiroldegietarako abonua eta emakume eta familientzako etxebizitza, adibidez.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Ontzat jotzen da aukera izatea nazioarteko babesari buruzko aholkularitza jasotzeko: nola irten herrialdetik, nola iritsi Espainiara, asilo-prozedura, harreran ematen den babesa, Hegoaldeko antolakunde eta sareekin nola egin aliantzak herrialde mugakideetara irteteko...

- Asilo-kasuetan Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak eman dezakeen aholkularitza juridikoa jasotzeari buruzko ezagutza handitzea

Nola?

- Informazio hori emanez programa aurkezteko bileretan (EAEn eta jatorrian).

HARRERA EAEKO BESTE LURRALDE BATZUETARA ZABALTZEA

Gaur-gaurkoz, defendatzaileak Bilbon hartzen dira. Harrera-antolakundeek egoitza beste udalerrri batzuetan badute, zaildu egiten da akonpainamendua eta eguneroko tratua.

Gainera, defendatzaile asko landa-eremutik datoz, eta harrera hiri-ingurunean egiteak zaildu egin ditzake defendatzaile batzuen sendatze- eta oneratzeko-prozesuak.

- Harrera beste hiriburu batzuetara eta landa-eremuetara zabaltzea

Nola?

- Udalekin eta foru-aldundiekin lankidetzan arituz, EAEko beste hiriburu batzuetan etxebizitzak lagata.
- Halaber, landa-eremuetan harrera egiteko erabil daitezkeen ostatuak aztertuz.

**Kontuan izan behar dira, kasu honetan, defendatzaileei lurralde desberdinetan harrera eta akonpainamendua egiteko etxebizitzak kudeatzeko izendatu diren langileak, bai eta defendatzaileen arteko topaketak ahalbidetzeko neurriak ere: gogoeta (eta aisialdi) espazio partekatuak.*

EAEKO HARRERA-ANTOLAKUNDEAK BABESTEA

Programan parte hartzeak lan-karga handia dakar, ez soilik denborari dagokionez, inplikazio pertsonalari eta emozionalari dagokionez ere bai. Espazio terapeutikoak eta errefortzudunak eduki behar dira antolakundeetan.

- Laguntza handiagoa ematea defendatzaileei harrera eta akonpainamendua egiten parte hartzen duten EAEko antolakundeei.

Nola?

- EAEko harrera-antolakundeei babes ekonomiko handiagoa emanez.
- Harreraren buru diren erreferentziazko pertsonak akonpainamendu psikoterapeutikoan prestatzea, taldeko tailerren bidez.
- Hautagaitzak partzuergoan edo sarean aurkezteko aukera emanez, akonpainamendu-lana banatzeko eta defendatzaileen beharrezanean hobeto erantzuteko.

BERTATIK BERTARAKO JARRAIPEN-MISIOAK INDARTZEA

Jarraipen-misioak baliagarriak dira programan parte hartzen duten Hegoaldeko antolakundeen borrokak nazioartean eta estatu mailan ikusarazteko. Oso ontzat jotzen da Jaurlaritzaren, Legebiltzarraren eta gizarte-eragileen parte-hartzea. Hegoaldeko antolakundeentzat oso garrantzitsua da tokiko eta estatu mailako agintaritzekin eta nazioarteko organismoekin harremana izatea.

Oso onuragarria da ordezkartzek lurraldeetan duten presentzia, inpaktu emozionalagatik (bakarrik ez sentitzea, lagunduta daudela sentitzea); izan ere, nazioarteko erakundeek eta

antolakundeek haien borrokak legitimatzen dituzte, babesa ikusgarri bihurtzea ahalbidetzen baitute eta EAEko antolakundeei eta erakundeei aukera ematen baitiete lurraldeen errealitatea ulertzeko, eta hori funtsezkoa da EAEko lankidetzaren eta elkartasunerako.

Halaber, oso ontzat jotzen da programak harreran egondako defendatzaileen monitorizazio eta akonpainamendu jarraitua egitea haiek jatorrira itzuli ondoren ere, lurraldeetako arrisku-egoeren jarraipena eginez, jakinarazpenak eginez, kanpainak bultzatuz, herrialdeko agintariekin hitz eginez defendatzaileek eta haien kolektiboek hala eskatzen dutenean, babesa emanaz mehatxu- eta arrisku-egoeretan...

- Bisiten inpaktuan sakontzeko beharra planteatu da.

Nola?

- Herrialdeko agenda mediatikoa indartuz: prentsaurrekoak eginez, elkarrizketak kudeatuz, sare sozialak erabiliz, eta material grafiko eta ikus-entzunezko material gehiago sortuz ondorengo ekintzetarako.
- Topaguneak sortuz ordezkartzaren agenda ofizialetik kanpo, honako hauetarako: 1) aurreko urteetan programatik igaro diren kolektiboaren egoeraren jarraipen teknikoak egiteko; 2) programan izandako parte-hartzea ebaluatzen; 3) jarraipen-bisita ebaluatzen.
- Defendatzaileei eta haien antolakundeei agenda instituzionala itzuliz. Esate baterako, misioa amaitu ondoren, kolektiboekin eginiko topaguneetan edo bisiten ebaluazioetan.
- Egoera larrietan *ad hoc* misioak egitea misio ofizialekoak ez diren beste eragile batzuekin, testuinguruak hala behartuta edo programan parte hartu duten antolakundeek hala eskatuta.

4. ONDORIOEN ETA GOMENDIOEN JARRAIPENA EGITEKO MATRIZEA

	HOBETZEKO PROPOSAMENAK	ABIAN JARTZEKO ETA LEHENESTEKO AUKERA	HARTU BEHARREKO NEURRIAK	ENTITATE INPLIKATUAK	KRONOGRAMA aurreikusia	BETETZE-MAILA
1	HEGOALDEKO ANTOLAKUNDEEN BABES-GAITASUN <u>KOLEKTIBOAK</u> INDARTZEA					
1.1	Kolektiboei jatorrian ikuspegi feminista eta psikosozialean oinarritutako babes integrala emateari buruzko ikastaroak egitea	Jarraipen-bisita 2024ko urtarrilean Kolonbiara. Proposamena sartzea hurrengo jarraipen-bisitetan.	Bisitetan saioak sartzera, kolektiboek hala eskatuta: EAEn egindako prestakuntza hara eramatea / epe ertain eta luzerako prestakuntza-beharrizanak identifikatzea.	EAEko antolakundeak Jatorriko antolakundeak Zehar-Errefuxiatuekin	2024ko urtarrila	
		Bisitetan egindako tailerren emaitzaren ondorioa.	Hautemandako prestakuntza-beharrizanak lantzea, EAEko lankidetzaren jarduketaren eremuaren barruan erantzuna emateko.	eLankidetzaren antolakundeak Jatorriko antolakundeak	2024ko otsaila-abendua	
2	IKUSPEGI <u>FEMINISTA</u> ETA <u>PSIKOSOZIALA</u> INDARTZEA. <u>DEKOLONIALITASUNEAN SAKONTZEA</u>					
2.1	Defendatzaileei eman beharreko akonpainamenduan begirada dekoloniala nola txertatu sakontzea.	Baliabideak bilatzea	Babes integralari eta ikuspegi dekolonialari buruzko ikastaroak egitea (dela EAEko antolakundeetarako, dela programaren koordinaziorako).	Zehar-Errefuxiatuekin EAEko antolakundeak	2024-2025	

				Hego Globaleko antolakunde aliatuak		
		Baliabideak bilatzea	<i>Ad hoc</i> ikastaroak eskatzea Hegoalde Globaleko antolakunde aliatuei.	Zehar-Errefuxiatuekin EAEko antolakundeak Hego Globaleko antolakunde aliatuak	2024-2025	
		ProTEJER sarearen dinamika eta aurrez aurreko bilerak aprobetxatzea	Gai horiek sartzea ProTEJER sarearen esparruan (Espainiako Babes Programen Sarea).	EAEko programa ²	2024ko iraila (aurrez aurreko bilera Gijónen)	
2.2	Akonpainamendu terapeutikoa izatea entitate laguntzaileentzat	Baliabideak bilatzea	Taldeko tailerrak egitea antolakunde laguntzaileentzat.	EAEko programa	2024ko apirila-uztaila	
		Baliabideak bilatzea	Programa koordinatzeko banakako akonpainamendu terapeutikoa berreskuratzea.	EAEko programa	2024ko urtarrila-abendua	
		ProTEJER sarearen dinamika eta programen ezagutzak aprobetxatzea	Kataluniako Programarekin kontrastatzea COS Cooperativa de Saludekin egiten duten lana: lanaren edukiak, aldizkakotasuna, baliabideak	Zehar-Errefuxiatuekin	2024ko otsaila	

² EAEko programaz ari garenean, 3 alderdiak inplikutzen dituzten erantzukizunez ari gara: Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza, eLankidetzeta eta Zehar-Errefuxiatuekin.

2.3	Ongizate emozionalari mesede egiten dioten beste elementu batzuk txertatzea. Adibidez, kirola	Udalekin biltzea bultzatzea ³ <i>*Egun etxebizitza dagoen lekua dela eta, lehentasuna Bilboko Udala da.</i>	Udal-kudeaketako baliabide publikoetarako sarbidea: doako abonua udal-kiroldegietarako, kultur etxeetako edo emakumeen etxeetako jardueri buruzko informazioa...	Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza	2024ko otsaila	
2.4	Harrerarako baliabide gehiago jartzea (ostatua) emakumeentzat eta LGTBQ+ pertsonentzat (indarkeria matxisten eta LGTBfobikoen prebentzioa), familientzat (atseden hartzeko gune propioa) eta hazkuntzaren erantzukizuna partekatu nahi ez dutenentzat.	Eskaera Etxebiden (EJ) <i>*Bide horretatik etxebizitzarik lortzen ez bada, eskaera hori udalekin egingo diren bileretan sartuko da</i>	Emakumeentzako, LGTBQ+ kolektiboarentzako eta familientzako etxebizitza	Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza	2024ko otsaila	
2.5	Zainketak eta agenda politikoa kontziliatzen laguntzea	Udalekin biltzea bultzatzea	Haurren udalekuetarako sarbidea (uda eta Aste Santua).	Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza	2024ko otsaila	

³ Diagnostiko hau egin bitartean, programarekin lankidetzan aritzeko prest agertu ziren. Gainera, Herri Babesarea ekimena ere badago, PBI-Espainiak eta Mundubatek bultzatua eLankidetzaren laguntzarekin. Ekimen horretan parte hartzen dute giza eskubideen defendatzaileak babesteko konpromisoa duten hainbat udalek.

		Baliabideak bilatzea	Zainketarako laguntza puntualak, defendatzailearen agendak hala eskatzen duenean	Zehar-Errefuxiatuekin EAEko harrera-antolakundeak	<i>*Egoeraren beharizanen arabera izango da</i>	
3	PROGRAMAREN POSIZIONAMENDU PUBLIKOA ETA EZAGUTZA HANDITZEA					
3.1	Programaren posizionamendu publikoa handitzea	Komunikazio-ekintzak sendotzea sare propioetatik.	Komunikabideen kronograma bat egitea Eusko Jaurlaritzaren eta Zehar-Errefuxiatuekin arteko koordinazio mediatikoa errazteko	Zehar-Errefuxiatuekin	2024ko otsaila	
		Komunikazio-ekintzak sendotzea sare propioetatik.	Baterako irudia sortzea	EAEko programa	2024ko otsaila	
		Komunikazio-ekintzak sendotzea sare propioetatik.	Komunikazio-protokolo bat egitea (programaren izena, traolak, etiketak...)	EAEko programa	2024ko otsaila	
3.2	Programaren eta haren helburuen eta irismenaren gaineko ezagutza handitzea		Deialdiaren baldintzak argitzea eta eguneratzea: ohiko galderen dokumentu bat egitea	Zehar-Errefuxiatuekin	2023ko iraila	
		Dinamika programaren deialdian eta	Programa aurkezteko saioak egitea, eLankidetzaren, Euskadiko GGKEen koordinakundearen eta Eskubidez	EAEko programa + Jarraipen Batzordea	2024ko iraila-urria (2023an ere eginak)	

		jarraipen-bisitetan sartzea	erakundearen inplikazio, laguntza eta hedapenarekin hiru lurraldeetan			
			Programaren aurkezpen-saioak egitea jatorrian, jarraipen-bisitetan (koadernoaren aleak eta ohiko galderen agiria entregatzea)	EAEko programa	2024ko urtarrila	
		Batzordearen bilerako gai-zerrendan sartzea	Deialdia hedatzeko kanalak definitzea Hautaketa Batzordeko kideen artean	EAEko programa + Jarraipen Batzordea	2024ko martxoa	
			Komunikazio-protokoloa partekatzea eta komunikazio-ekintzetan sartzea			
4	ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAK ERRAZTEA					
4.1	Bisak kudeatzeko administrazio-izapideak erraztea	ProTEJER sarearen topaketa (Bartzelona).	ProTEJER sareak Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren GEBarekin duen intzidentzia politikoaren ildo indartzea	EAEko programa + ProTEJER sarea	2023ko abendua	
	<i>* Ildo horiek indartzeko aipatutako ekitaldiak 2023an egin dira. Nolanahi ere, denboran mantendu beharreko ekintza da.</i>	CIDHrekin antolatzea.	Sareak elkarrizketa-bideak aztertu eta irekitzea GEBean presio politikoa egin dezaketen beste eragile batzuekin.	ProTEJER sarea	2023ko azaroa	
		Bisei buruzko mintegiaren topaketa Madrilen	Eusko Jaurlaritzaren eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren arteko komunikazioa indartzea.	EAEko programa	2023ko azaroa	

5	ERANTZUTEKO AHALMENA AREAGOTZEA					
5.1	Erantzuteko ahalmena areagotzea <i>*Programaren esparruen barruan malgutasunez mugitzea, askotariko errealitatei erantzuna emateko, prozeduran eta helburuetan aldaketarik egin gabe</i>	<u>Barne-gogoeta</u> 2025era begira	Deialdi ofizialarekin plaza guztiak betetzen ez badira, programa irekita uztea ondoren sor daitezkeen kasuetarako	EAEko programa	2024ko iraila-abendua (gogoeta-espazioak)	
		<u>Barne-gogoeta</u> 2025era begira	Plazen kopurua handitzeko aukera proiektatzea, ostatu berriak sartzearen eta horretarako baliabideak handitzearen arabera.		2024ko iraila-abendua (gogoeta-espazioak)	
6	HARRERA-DENBORETAN MALGUTASUN HANDIAGOA IZATEA					
6.1	Harrera-denborak egokitzea defendatzaileen eta haien antolakundeen beharretara eta nahietara	Ohiko jardun gisa sartuta	4 eta 8 hilabete arteko egonaldiak ahalbidetzea	EAEko programa	2023ko abendua	
7	SAREAK ETA ALIANTZAK SENDOTZEA					
7.1	Programak lankide dituen entitate eta organismoak areagotzea		Aliantzak sendotzea Nazio Batuen sistemarekin, programaren propioekin (adibidez, defendatzaileen errelatorea) eta Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzaren (OACNUDH Colombia) eta eLankidetzaren lanaren ondoriozkoekin.	EAEko programa	2024ko urtarrila-abendua	

			Aliantzak sendotzea babesean adituak diren antolakundeekin: Protection International, Front Line Defenders, IM-Defensoras, PBI, besteak beste.	Zehar-Errefuxiatuekin	2024ko urtarrila-abendua	
		Barne-gogoeta programaren lidergo-eta kudeaketa-arloko inplikazioengatik	Tokiko administrazioak (udalak eta foru-aldundiak) sartzeko aukera aztertzea.	EAEko programa	2024ko urtarrila-abendua	
8	AHOLKULARITZA JURIDIKOA					
8.1	Asilo-kasuetan Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak eman dezakeen aholkularitza juridikoa jasotzeari buruzko ezagutza handitzea	2023an aurkezpenak egin dira eta proposamena sartu da 2024ko urtarrileko bisitarako	Informazio hori ematea programa aurkezteko bileretan (EAEn eta jarraipen-bisitetan)	Zehar-Errefuxiatuekin	2024ko urtarrila-abendua	
9	HARRERA EAEKO BESTE LURRALDE BATZUETARA ZABALTZEA					
9.1	Harrera beste hiriburu batzuetara eta landa-eremuetara zabaltzea	Barne-gogoeta kudeaketa- eta langile-arloko inplikazioengatik.	Udalekin eta foru-aldundiekin lankidetzara sartzeari buruz, EAEko beste hiriburu batzuetan etxebizitzak lagata. Halaber, landa-eremuetan harrera egiteko erabil daitezkeen ostatuak aztertzea.	EAEko programa	2024ko urtarrila-abendua	
10	EAEKO HARRERA-ANTOLAKUNDEAK BABESTEA					
10.1	Laguntza handiagoa ematea defendatzaileei harrera eta akonpainamendua egiten parte hartzen duten EAEko antolakundeei.	<i>*Betiere, lidergo bat badago eta baliabideak zein diren argi badago</i>	Hautagaitzak partzuergoan edo sarean aurkezteko aukera ematea, akonpainamendu-lana banatzeko eta defendatzaileen beharriari hobeto erantzuteko.	EAEko programa	2024ko iraila-urria	

		Hitzarmenak areagotzea	EAEko harrera-antolakundeei babes ekonomiko handiagoa ematea.		2024ko urtarrila-abendua		
		Baliabideak bilatzea	Harreraren buru diren erreferentziako pertsonak akonpainamendu psikoterapeutikoan prestatzea, taldeko tailerren bidez.		2024ko apirila-uztaila		
11	BERTATIK BERTARAKO JARRAIPEN-MISIOAK INDARTZEA						
11.1	Bisiten inpaktuan sakontzea	Komunikazio-protokoloa	Herrialdeko agenda mediatikoa indartzea: prentsaurrekoak egin, elkarrizketak kudeatu, sare sozialak erabili, eta material grafiko eta ikus-entzunezko material gehiago sortu ondorengo ekintzetarako.	EAEko programa	2024ko urtarrila		
		Topaguneak	Topaguneak sortzea ordezkartzaren agenda ofizialetik kanpo, honako hauetarako: 1) aurreko urteetan programatik igaro diren kolektiboen egoeraren jarraipen teknikoak egiteko; 2) programan izandako parte-hartzea ebaluatzeko; 3) jarraipen-bisita ebaluatzeko.	EAEko programa EAEko harrera-antolakundeak Jatorriko antolakundeak	2024ko urtarrila		
		Topaguneak	Parte-hartzaileen artean topaguneak eta koordinatzeko espazioak sortzea (aurretik, bitartean eta ondoren): ordezkartzak, edukiak eta ondorengo hedapena zehaztea.	EAEko programa	2024ko urtarrila		

		Agenda instituzionalaren emaitzak itzultzea herrialdeko antolakundeei.	Defendatzaileei eta haien antolakundeei agenda instituzionala itzultzea. Esate baterako, misioa amaitu ondoren, kolektiboekin eginiko topaguneetan edo bisiten ebaluazioetan.	EAEko programa EAEko harrera-antolakundeak	2024ko urtarrila	
			Bisiten txostenak azkarrago egitea, kontrastatzea eta hedatzea	EAEko programa	2024ko otsaila- martxo	
		Eztabaidarako eta <u>barne-gogoetarako</u> espazioa	Egoera larrietan <i>ad hoc</i> misioak egitea misio ofizialekoak ez diren beste eragile batzuekin, testuinguruak hala behartuta edo programan parte hartu duten antolakundeek hala eskatuta.	EAEko programa EAEko harrera-antolakundeak Jatorriko antolakundeak	2024-2025	

Prozesuan, beste proposamen batzuk sortu ziren, era berean interesgarriak baina hemen jaso ez direnak, bai eta EAEko lankidetzaren eta elkartasunerako beste tresna, programa eta antolakunde batzuek garatu beharreko ekintzak ere, esparru horretan egindako lanaren osagarri direnak. Arestian aipatu dugun moduan, gaiari buruzko dokumentazioa eskura daiteke, eskatuz gero.